

jokulariak140

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
negua 2025 invierno

BULTZADA SARIA 2025 “HAUSKORRAK GARA INDARTSUAK BESTE”



AISGE

es lo tuyo

Si eres actor o actriz audiovisual,

¡HAZTE SOCIO!

No te
costará
nada,

Te beneficiarás
de nuestra labor
asistencial y
formativa

Y recibirás los
derechos que te
corresponden



aisge

www.aisge.es

Tel. 943 271 599



140

negua
invierno
2025
Azala Argazkia
Pablo Gómez



06



07



11

AURKIBIDEA

- 04 EDITORIALA
- 06 **Cinema with Palestine**
- 07 **Protokolo baten bidean**
EAB, (H)emen
- 11 **ELKARRIZKETA**
Miren Gaztañaga
María Pastor

- 18 **Ana Fabo (1967-2025)**
Les Underklowns, Alazne
Etxeberria

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 688 619 788

BILBAO
Bilbaoeszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 747 477 912

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

Koordinazioa eta edizioa
María Pastor, Uzuri Guridi
Testuen zuzenketak
Uzuri Guridi, Eneko Sagardoy

Maketazioa, diseinua
I. Z.
Inprimategia
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritzi eta artikulua.
Recordad que esta revista es de todas y todos, y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

ISILTASUNAREN AURKA

Beste urte batez, Zinemaldia Donostiara iritsi zen —edo agian Donostia da Zinemaldia bere baitan dakarrena—. Ez dakigu berdin dion edo ez, baina ziur dena da, edizio honetako jaialdiak mundu guztiko begi eta konzientziak puntu bati begira jarri zituela: giza eskubideei dagokienei eta gizarte bezala hobetzear daukagun guztiari begira.

Bi asteetan zehar hiriburua gorri, berde eta txuriz jantzi zen, Gaza jasaten ari den genozidioaren aurkako txapen koloreekin. Hauei beltza gehitu eta herri palestinarren egoeraren iluntasuna irudikatzen zuten. Zinemaren komunitateak, hainbat elkarte eta erakundeekin batera, ahotsa altxatu zuen modu ageri batean egin ezin dutenen izenean. Beraien lekua eta hitza erabili zuten gizartearen aurkako kalte gehiago ezin dela onartu aldarrikatzeko.

Pelikula batean ikustea gauza bat da; benetan gertatzen ari dela onartzea, beste bat. *The voice of Hind* (Kaouther Ben Hania, 2025) pelikulako aktorea den Saja Kilaniren hitzetan: “Film batek ez du gertatu zena bakarrik kontatzen, baizik eta ikusi ez zena ere: itxaronaldiak, lagundu ezina, zifra huts batera murriztu ezin diren bizitzak. Palestinarrak ez dira zenbakiak, pertsonak dira”.

Egun horretan bertan, EABk Ramon Bareari eman zitzaion Gure Zinema sariaren ekitaldian parte hartu zuen. Eta urreko egunean, EABk

Zinemaldiko *Gure ahotsak. Indarkeria matxisten aurkako akzio kolektiboa ekitaldian* parte hartu zuen (H)emenekin batera, euskal ikus-entzunezkoetan eta arte eszenikoetan egindako ikerketa eta analisiaren aurkezpenarekin, indakeria matxistak ekidin eta prebenituko dituen protokolo baten bidean.

Eta, nola ez, Miren Gaztañagak EABren Bultzada Saria jaso zuen Euskal Zinemaren Gala Handian, eta bere ahotsa goratu zuen gauza txiki eta sinpleen alde egiteko, maite ditugun pertsonekin partekatutako momentuen alde, hauek baitira benetan garrantzitsuak direnak, bizitzari eusten diotenak.

Maitasunik gabe ez baitago inguratzen gaituen arenganako interesik; interesik gabe ez dago borrokarik. Eta, hain zuzen ere, borroka kolektibo hori da —zaratsua edo isilagoa dena— ahaleginek fruituak eman eta merezi izatea eragiten duena. Borroka hori gure elkarteak existitu baino lehenagotik dator eta hurrengo belaunaldiek erreleboa hartzen dutenean ere jarraituko du. Zinema, ikasteko tresna delako; lan kolaboratiboa eta kolektiboa delako; eta komunikatzeko eta aldaketarako bide boteretsua delako.

Ale honetako azken orriak Ana Fabori eskaini dizkiogu: gure lankideak 2025. urtea amaitu baino lehen utzi gintuen, baina maite dutenen oroimenean argiz beteta jarraituko du.

CONTRA EL SILENCIO

Un año más, el Zinemaldia llegó a Donostia —o quizá sea Donostia quien trae consigo al Zinemaldia—. No sabemos si da lo mismo o no, pero lo que sí es seguro es que, en esta edición, el festival sirvió para activar conciencia: sobre los derechos humanos y sobre todo aquello que, como sociedad, tenemos pendiente mejorar.

Durante dos semanas, la capital se tiñó de rojo, verde y blanco, los colores de las chapas contra el genocidio en Gaza que, al sumarse al negro, dibujan la oscuridad que atraviesa el pueblo palestino.

La comunidad cinematográfica, junto a multitud de asociaciones y entidades, alzó la voz en nombre de quienes no pueden hacerlo. Utilizaron su posición y su palabra para reivindicar que no se puede seguir permitiendo el daño contra la humanidad.

Verlo en una película es una cosa; aceptar que ocurra en la vida real es muy distinto. En palabras de Saja Kilani, actriz de *The Voice of Hind* (Kaouther Ben Hania, 2025): “Una película no sólo cuenta lo que ocurrió, sino también aquello que no se vio: las horas de espera, la imposibilidad de auxilio, las vidas que no pueden reducirse a cifras. Los palestinos no son números, son personas”.

Ese mismo día, EAB formó parte en la entrega del premio Gure Zinema a Ramón Barea. Y un día antes, EAB participó en *Nuestras voces. Acción colectiva contra las violencias sexuales* del festival, presentando, junto a (H)emen, la investigación y el análisis realizados en el sector audiovisual y de las artes escénicas para la

elaboración de un protocolo que combata y prevenga las violencias machistas.

Y, cómo no, Miren Gaztañaga, actriz galardonada con el premio Bultzada de EAB en la Gran Gala del Cine Vasco, alzó su voz para recordarnos que las cosas pequeñas y sencillas, las compartidas con las personas que queremos, son las verdaderamente importantes, las que sostienen la vida.

Porque sin amor no hay interés por lo que nos rodea; sin interés no hay lucha. Y es precisamente esa lucha colectiva —ruidosa o silenciosa— la que hace que los esfuerzos sigan adelante y merezcan la pena. Una lucha que viene de antes de que nuestra asociación existiera y que continuará cuando las siguientes generaciones tomen el relevo. Porque el cine es aprendizaje, es trabajo colaborativo y colectivo, y un poderoso medio de comunicación y cambio.

Para cerrar estas páginas, despedimos a nuestra compañera Ana Fabo, que nos dejó a finales del 2025, pero que permanece en la memoria de su entorno.



GENOZIDIOA STOP! CINEMA WITH PALESTINE

Argazkia Eitb orain eta El País, Behean Argazkia Noticias de Gipuzkoa eta Rakel Ezpeleta

EAB, junto a Donostia Palestina, GreenPeace y Kulturatik entre otros/as, y de la mano de la comunidad palestina de Euskal Herria, formó parte de la plataforma CINEMA WITH PALESTINE, mediante la cual colaboró activamente en las protestas, manifestaciones y distintas acciones que tuvieron lugar durante el festival, para denunciar el genocidio sobre el pueblo palestino. Tras la proyección de La voz de Hind, de la cineasta tunecina Kaouther Ben Hania, el mundo del cine salió a las calles de Donostia con pancartas en la mano, chapas en el corazón y altavoces en alto. Porque, como nos recuerdan Dash & Lily, lo personal es político... o quizá lo político sea siempre personal...



PROTOKOLO BATEN BIDEAN



(H)emen-eko Sara Mauleon, Eguzkiñe Aranzibia eta Kristina Zorita. Eusko Jauriaritzako Ana López, Emakundeko Miren Elgarresta eta EABko Rakel Ezpeleta Argazkia **Zinemaldi**

(H)emen eta EABk bultzatuta eta Emakunde, KSIgune eta EHU/UPVren babesarekin, ikus-entzunezko eta arte eszenikoetako sektoreetan indarkeria matxistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloa garatzen ari gara.

Protokoloa 2025. urtean zehar egindako ikerketa eta diagnosi lan sakon batean oinarritzen da: sektoreko pro-

fesionalen ahots eta bizipenetatik abiatzen da, eta Garaiz Arregi Leon-ek bere "Indarkeriarik gabeko kultura: Ikus-entzunezkoetan eta arte eszenikoetan indarkeria matxistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko EAEko protokoloaren bidean" master amaierako lanean jaso ditu lan honen inguruko xehetasun guztiak.

Ondorengo orrietan, lehen fase honen ondorio nagusiak laburbiltzen dituen txostenaz arituko gara. Bertan, agerian geratzen da indarkeria matxista ez dela kasu isolatuaren ondorio bat eta beharrezkoa dela tresna bateratu, argi eta eraginkor bat izatea.

Noren ahotsa jaso dugu?

Sektoreko profesionalen bizipenen errealitatek abiatutako analisia da:

- Euskal Herriko 90 profesionalen esperientziak jaso dira inkesta bidez (ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoaren sektoreetako profesionalak).
- 5 elkarrizketa sakon egin dira profil ezberdinekin (soinua, ekoizpena, kamera, interpretazioa, estilismoa).
- Focus Group-a. Inkestan parte hartutako hainbat profesionalekin saioa egin da ideiak eta ikuspegiak trukatzeko.

Jasotako indarkeria-kasuak ez dira soilik norberak bizitakoak; lekuko gisa ikusitakoak zein biktimek konfiantza kontaktutakoak ere jaso dira.

GURE AHOTSAK NUESTRAS VOCES

Sexu indarkeriaren kontrako ekintza kolektiboa



IRAILAK 23 de SEPTIEMBRE- 12:30H KURSAAL



UN PROTOCOLO PARA TODAS

NECESITAMOS TU VOZ

Kartelak EAB, (H)emen

Diagnostikoa: sektorearen erradiografia

Hemen biltzen dira ikerketaren daturik esanguratsuenak:

1 Segurtasun falta

Profesionalek ez dute beren lantokia leku segurutzat jotzen. Segurtasuna ez da soilik arrisku fisiko eza, epai-tua izateko beldurrik gabe lan egitea eta hierarkia toxikorik ez egotea ere bada.

2 Indarkeria errealitate bat da

%43,3k indarkeria matxista **jasan** du.

%60k indarkeria kasuak **ikus**i ditu.

%65,5ari biktimak kasuren bat **kontatu** dio.

3 Ikusezina baina erreal

Indarkeria fisikoa edo sexuala existitzen diren arren, sektorean gehien nagusitzen dena indarkeria psikologikoa da (irainak, gutxiespenak, presioa, manipulazioa). Askotan "laneko tentsio" gisa normalizatzen da, baina eragin sakona du.

Indarkeria jasan dutenen artean, **%58,97k** generoagatik **indarkeria psikologikoa** pairatu du.

Indarkeria sexuala (%35,9) eta **lan-esplotazioa** (%30,7) ere oso presente daude.

| Zein indarkeria mota jasan duzu? | Guztira | % |
|---|---------|---------------|
| Psikologikoa generoagatik | 23 | %58,97 |
| Sexuala generoagatik | 14 | %35,9 |
| Lan-esplotazioa generoagatik | 12 | %30,7 |




Erantzuna: isiltasunetik protokolora

Zergatik ez da salatzen?

Indarkeriaren aurrean, erreakzio ohikoena isiltasuna edo gertatutakoa ingurukoekin modu informalean partekatzea izaten da. Oso salaketa formal gutxi izan ohi dira (%5 bakarrik).

Indarkeria jasan dutenen artean, **%87,18k** esan du erasotzailea **hierarkiaz edo botereaz baliatu** den norbait izan dela.



4 Boterea

Datu hau diagnostikoaren gakoetako bat da. Indarkeria estuki lotuta dago hierarkiarekin eta botere-abusuarekin.


5 Arrisku guneak

Lana eta bizitza pertsonalaren arteko mugak lausoak dira sektorean. Indarkeria une zehatz batzuetan pilatzen da.

Entseguetan: intentsitate emozional handiko uneak.

Aisialdian: laneko harremanetatik eratorritako afariak, jaialdiak eta promozio ekitaldiak.

Sail teknikoetan eta artistikoetan: gizonen presentzia nagusia da gune hauetan; bertako dinamikek eta hierarkiek jarrera matxistak normalizatzea errazten dute.



Zergatik gertatzen da hau?

Inkestaturen ustez:

- **Emaitza eraginkorren faltagatik (%46):** Ez da ezer aldatzen.
- **Beldurragatik (%38):** Errepresalien beldurra, "zerrenda beltzen" beldurra.

Tresna falta nabaria da:

- Inkestaturen **%91k** uste du gaur egun **ez dagoela tresna eraginkorrik** sektorean indarkeria matxistari aurre egiteko.





Nuestras voces Argazkia Zinemaldi

Eta orain zer?

Inkestaturen %93,3ak uste du protokolo baten sorkuntza ezinbestekoa dela.

Zer eskatu diote profesionalak protokoloari?

- **Prebentzio estrukturala (%94):** arazoa sustraitik lantzea, ez soilik kasuak kudeatzea.
- **Lan-baldintzak argitzea (%71):** prekaritateak eta lausotasunak abusua errazten dutelako.
- **Arreta zerbitzua (%70):** salaketan aurrean erantzun profesionala emango duen zerbitzua.
- **Intimitate koordinatzailea (%61):** figura hau bermatzea eszena delikatuetan.
- **Erreparazioa eta zigorra:** biktimari laguntza integrala ematea (%83) eta erasotzailearentzat zigor errealak egotea (%82).

Eta horixe da bidea: protokolo bat eraikitzea.

Helburua argia da: protokoloa 2026. urtean argitaratu eta ezarri ahal izatea, lan-ingurune seguruagoak, bidezkoagoak eta errespetuzkoak eraikitzeko, prebentzioa, arreta eta erreparazioa ardatz bezala hartuz, eta sektoreko eragile guztien erantzukizun partekatua sustatuz.

EABtik gogorazi nahi dizuegu:

Asesoría en EAB

EAB es un espacio seguro y os recordamos que contamos con un equipo de abogados que presta sus servicios sin coste a la afiliación en lo que concierne al asesoramiento y resolución de dudas de los actores y actrices en asuntos laborales y jurídicos.

Si eres afiliado/a de EAB y necesitas contactar con nuestra asesoría Lege-Berri, contacta con nuestras oficinas de Bilbao o Donosti.

¿Y si no soy afiliado/a?

Puedes afiliarte, y desde el momento que te afilias tendrás asesoramiento gratuito. Y si no quieres afiliarte, contactáanos igualmente e intentaremos ayudarte.

MIREN GAZTAÑAGA

”Esperimentazioari profesionaltasuna ematearen aldekoa naiz”

Elkarrizketa **María Pastor**



Miren Gaztañaga EABren Bultzada Saria jasotzen Euskal Zinemaren Galan. SSIFF

lazo irailean Euskal Aktoreen Batasunak Miren Gaztañaga aktoreari eman zion 2025 Bultzada Saria Donostiako Zinemaldian, bere ibilbidearen eta sektorearekin duen konpromisoaren aitortzea. Sariaz, ibilbideaz eta lanbideari buruz duen ikuspegiak hitz egin dugu berarekin.

Bueno Miren, ezer baino lehen zorionak eta eskerrik asko tartetxo bat ateratzeagatik, badakigu oso liatuta zaudela hainbat proiektuekin. Hasteko jakin nahiko genuke, zer suposatu duen Bultzada Saria jasotzeak.

Ba askotan esan dudanez bezala, Bultzada Saria jasotzea, oso sari polit bat jasotzea izan zen. Goxotasunez beteriko sari bat. Ze azkenean sindikatutik dator, lankideak dira, eta oso ederra da lankideen aldetik horrelako errekonozimendu bat jasotzea. Oso polita izan zen. Sindikatutik deitu zidaten eta pentsatu nuen “ea zer pasatzen den”. Eta bapatean, bideodeia ireki nuenean, sei pertsona agertu ziren pantailan notiziaren berri emateko. Emozionatu egin nintzen ze ez nuen inondik ere espero. Notiziak asko poztu ninduen.

Trofeoa jaso eta pertsona guzti horien aurrean hitz egin behar zenuen, nola izan zen galako une hori bizitzea?

Urduri nengoen, egia esan! Mugikorrean eraman nuen esan beharrekoa. Beti dira egoera ez-ohikoak, baina poz handiarekin bizi izan nuen, gainera Kepa Errastik egin zuen sariaren aurkezpena eta laguna dudanez hori ere oso berezia izan zen.



Etena kartela, Stereo liburua Durangoko Azoka Argazkia **María Pastor**



Eta zergatik esan zenuen esan zenuena?

Une horretan nire osabarekin oso prozesu gogorra bizitzen ari ginen. Adineko gizon ederra da bera, osasunez kaxkar dagoena eta une horretan hospitalean zegoen. Elkarriketa sakon bat izan genuen egun horietako batean. Bizitzan badaude une batzuk bereziki garrantzitsua den horrekin konektatzen zaituztenak, eta hau horietako bat izan zen. Osabarekin bizitzari eskerrak ematen ari-tu ginen eta bizitako gauzei balioa ematen, maitasunez betetako uneak izan ziren. Eta hori zen une horretan barruan nuen aldarririk biziena, bizitzan esanguratsuak diren esperientzia eta inguruan maite ditugunei balioa eman eta haiengatik eskertuta egotea. Azkarregi bizi gara, hainbeste estimulorekin arreta non jarri ezin asmatu... Horrek indar asko kentzen digu. Beraz apur bat bidetik irteten garenean, eten bat hartu eta eskerrak eman bi-hotzez. Aspirina bikaina da.

Azkenean, beste motatako sormen prozesu bat da, eta zu horrelakoetan murgilduta egoten zara, ezta? Adibidez, Ainhoa Jauregirekin egindako Stereo antzezlanean. Ze ekarpen ezberdin egiten dizu sortzaile izateak aktore izatearekin alderatuta?

Niri sorkuntza prozesuak asko, asko, asko gustatzen zaizkit. Erabat osagarria da aktorea eta sortzailea izatea nola ez, hein batean elkarrekin doaz ezinbestean. Sorkuntza prozesuan sortzaile bezala egotea, lantzen dituzun gaiak adostu, departamentu desberdinekin garatu... droga horrek asko engantxatzen du... Kar, kar, kar...

Badu bere alde gogorra ere, baina asko betetzen nauen zerbait da. Bestalde, ikus-entzunezkoetan desberdina da, egia da prozesu kolektibo hori faltan botatzen dudan zerbait dela, denbora gehiago edukitzea sorkuntza prozesurako. Baina beste gauza batzuk ditu. Egia da ikus-entzunezkoetan lehen baino denbora gehiago eskaintzen zaiola entsegu eta prestaketei. Hori niretzat primerakoa da ze oso entsegu zalea naiz. Bakarkako lanak ere garrantzi handia dauka, hausnarketa, sakontze lana, eta abar. Egoera perfektua batetik besterako saltoak egiten bizitzea. Aldaketa zalea naiz, kontraste zalea.

Eta zoezer kozinatu beharko bazenu momentu honetan, zer izango litzateke?

Ba justu martxoan estrenatuko dugu antzezlan bat edo halako lan performatibo bat den pieza eszeniko bat, *Etena*. *Exire inertia* izena duena. Eta nire buruari bai eman niola opari hori, zuzendaritzaren bizipena edukitzearena. Gogoia nuen sorkuntza kolektibora hurbiltzekoa berriz, baina zuzendaritzaren ikuspegitik. Zeretik abiatuta, deriba horri lekua eman genion, helmugan baino bidean arreta gehiago jarriaz. Getari Etxegarai, Maria Urcelay eta Garazi Navas, zoragarriak hirurak, bidelagun nituela, entsegu aretoan tematika eta ariketa desberdinak lantzen hasi ginen. Nahi baino denbora gutxiago izan genuen, zeretik sortu baikenuen hilabete batean zehar, 60 minutuko pieza bat. Sorkuntza honen testuingurua erlaxatuagoa zen guretzat. Zelako Kultur Ideiak taldekoek luzatu zidaten sorkuntza-ren proposamena eta nik aurrera egin. Esperimentazioari



Koldo Almandoz, Josean Bengoetxea eta Miren Gaztañaga Argazkia **Ulises Proust**

eman genion tartea hala ere. Askotan goaz emaitza finko batera, eta normala da, konpainiek beraien ardurak dituzte, epe-mugak... Baina horrelako kontestu batean esperimentazioari profesionaltasuna ematearen aldekoa ere banaiz. Pieza arraragoa aterako da, ez horren borbila, baina halako lanek badute zerbait, oso bizia, niri asko interesatzen zaidana.

Bilaketa hori egin ahal izan zenun *Azken Erromantikoak* (David Pérez Sañudo, 2024) filmean? Nola izan zen?

Bai. Pelikula hontan gauza berriak ikasi eta praktikatu nituen prozesuan. Bakarkako lanak alde batetik garrantzi handia izan zuen Iruneren buruan sartu ahal izateko. Bestalde, Davidek, zuzendariak, oso argi zuen espazioa utzi nahi ziola entsaiatzeari eta eszena guztiak pasa genituen errodejera joan baino lehen. Azala sorkuntza gunean ere egon ginen hiru egunez lanean Maica Barroso eta Erik Probanza aktoreekin batera eta baita David Pérez Sañudo eta Marina Parés gidoilariarekin ere. Denbora izan genuen bertan egon eta elkar ezagutzeko. Pelikulan egon ziren aktore guztiak ere lan egiteko aukera izan nuen eta hori opari bat izan zen.

Nola ikusi zenuen zure burua, prozesu guztian, gidoia jaso zenuenetik filma bukatu arte?

Gogo izugarria nuen halako zerbait bizitzeko. Lanik egin gabe ezin ikasi, ezin sakondu, eta "erromantikoek" aukera hori eman zidaten. Bidaia luze, potente eta zoragarria

da. Bertigoa ematen du noski, zirrara eta zoriontasun ikaragarria. Hasieran urduri nengoen arduragatik, baina paper luzeak tokatzen zaizkizunean, protagonista batena esaterako, aukera ematen dizu errodejaren egunez egun egoteko eta taldea sakonago ezagutzeko... horrek lan egiterako orduan beste egonkortasun bat ematen dizu, beste lasaitasun bat, segurtasun bat. Nik asko eskertu nuen hori. Baita zuzendariarekin sortzen den hurbileko harremana ere, hori luxu bat da. Egia da, entrega handiko lana dela eta ez dakizula guztiz emaitza zein izango den, baina aurrera zoaz buru-belarri, zure intuizioa eta zuzendaria eskutik hartuta. Zentzu batean gogorragoa da egun bakarreko lanak suertatzen zaizkizunean, lan dinamika hartuta duen talde baten barruan tarte batez zurea egitera zoazenean.

Nolakoa izan zen pelikula ikusi zenuen lehen aldia?

Lehenengo ikustaldian nire burua ikusi nuenean, oso gogorra izan zen. Honek ez du pelikularekin zerikusirik, nire beldurrak ziren, ez dakit, blokeatu egin ninduten... shock bat izan zan. Nire etxean bakar-bakarrik negoen, hor terrore denak etorri zitzaizkidan.

Zergatik?

Epaiaren beldurretik begiratu nintzelako. Betaurreko horiek jartzen dituzunean ez da ezer den bezala ikusten. Nahiko onbera izaten naiz nire burua ikusten dudanean baina ez beti, antza. Oso gauza irrazionala izan zen era berean, eta esan nuen "bueno Miren, utzi 'traumak' alde



Miren Gaztañaga SSIFF
Argazkia **Jorge Fuembuena**

batera eta orain ikusi pelikula". Zorionez hala egin nuen eta beste esperientzia bat izan zan, erabat ezberdina. Pelikula ikustea lortu nuen, ez ni, ni, ni, ni...

Klaro, alde batetik dago, nola sentitzen zaren zu, eta gero dago aurrean ikusten duzun errealitatea.

Hala da. Bidaia luze, sakon eta ederra egin genuen eta hori bat-batean pelikula bat bihurtzen da eta zu aurrez aurre zaude zure etxean pantailari begira. Antzerkia oso bizipen desberdina da zentzu horretan.

Ez dakit aktore guztiei pasatzen zaien, baina badago gai bat, gure burua jipoitzearena. Zuk bidaia hori nola bizi izan duzun galdetu nahiko nizuke: urte asko pasa dira 18-19 urterekin hasi zinenetik, zuretzako segurtasun falta hori arazo izan da?

Buf! Oso deserosoa da segurtasun falta sentitzea. Lana eskatzen dizu era berean, lan pertsonala egitea, hausnartzea, beldurra zeharkatzea eta orduan hazi egiten zara. Zuhurtasuna beti daukagu alboan, norberaren izaeraren arabera, modu batean ala bestean. Bizitzan etapa desberdinak bizi dituzu eta lana guzti horri eskutik hartuta doa. Adibidez, gogoratzen ditut nire hogeita-piku urteak, hor neukan energia, dana emateko prest, hau eta bestea egiten, gaztetasunaren energia berezi horrekin. Era berean oso lotsatia ere banintzen eta asko nuen neure buruaz ikasi, eraiki eta deseraikitzeke. Urte potenteak izan ziren hasierakoak zentzu askotan. Heldutu ahala aldatuz zoaz, eskerrak,

indar horren zerbait galdu arren beste zeozer helduago batek lekua hartzen du. Hauskorrak garela indartsuak beste eta ondo dagoela; gure lanak ere baduela bertatik asko edateko, modu osasuntsu batean, noski. Nire zaugarritasuna bidelagun dut, eta gestionatu behar ditut autoexigentzia eta abarrak. Gizakiak gara eta gure paletan kolore guztiak sartzen dira bai ala bai.

Alde batetik dago zu nolakoa zaren eta zure pertsonaiari zer aportatu diezaiokezun; eta beste alde batetik, zure ondoan dauden lankideek ematen dizutena. Nola sortu duzu zure lan egiteko metodoa?

Nik ez dut metodo irmo bat. Lan asko egiten dut, hori bai. Testua ondo ikasi eta lan hori egin ostean, intuizioari lekua uzten saiatzen naiz. Beste lankideak ezinbestekoak dira, noski. Askotan aurrean daukazuna entzutean datza, eta gero zurea kudeatzean.

Izan dituzun momentuetatik bat aukeratu behar-ko bazenu, zein izango litzateke?

Buf... Hau zaila da... Zorionez momentu asko dauzkagu. Bat aukeratzea zaila egiten zait... Bistako zerbait da, baina, *Azken Erromantikoak* filmeko kastinga aurrrera atera nuela esan zidatenean, oso pozgarria izan zen. Baina hainbeste une daude, zorionez... Lehenengo antzezlanara egin nuenean, lankideekin taula zein platoa partekatzean beste hainbat une, baita bihotzean gordetzen dituzun lan kuttunenak ere: *Mundopolsky*



Miren Gaztañaga SSIFF Argazkia
Iñaki Luis, Bultzada saria
 Argazkia **Rakel Ezpeleta**

(Alex Gerediaga, 2002), *Stereo* (2010), *Maitasuna-
 ren itxiera* (Pascal Rambert, 2021), besteak beste.

Bestalde ze zortea dugun, nahiz batzuetan lan egitea ez den hain erraza, gustukoa dugun ogibide bat edukitzea. Ze, lan egun txarrak izan ditzakezu, baina asko onak dira eta betetasun handiarekin itzultzen zara etxera. Energia erabat aldatuta. Gainera, gure lanak, pertsonaiez aparte, lan mota desberdin asko egiteko aukera ematen digu eta hori oso aberatsa da niretzat.

Edo emanaldi baten ostean... Gure lanak asko eramaten gaitu unean "hemen eta orain" egotera, eta gizakiak hemen eta orain gaudenetan zoriontsu gara. Buruko zarata guztiak apur bat uzteko gaitasuna dugunean... antzezpenak asko konektatzen zaitu, asko errotu.

Egon al da momenturen bat, non esan duzun *lo dejo*?

Ba... *lo dejo y punto*, ez. Baina egon zen momentu bat non sentitu nuen gogorra egiten zitzaidala gure lana beti epai baten begiradapean egotea. Eta sartu zitzaidan horrelako... ez dakit krisia den hitza, baina bai pentsatu nuela: ze aportatzen diogu guk munduari? Eta badakit zer aportatzen diogun, noski, baina momentu hartan, zainztatik nembilen gehiago edo elkarlaguntzetik, eta sartu nintzen Psikomotrizitatea eta Haur Hezkuntza ikastera. Imajinatzen dut hor ere ama izatearen nahia edo pultsioa ere bazegoela. Ikasketak egin nituen 2016an edo... Momentu horretan bi lanak batera egiten nituen eta interesgarria izan zen nire burua testuinguru desberdine-





Miren Gaztañaga SSIFF Argazkia
Jorge Fuembuena

tan ikustea. Hori bai, ikasten amaitu eta argi izan nuen, aktorea naiz. Batzutan behar dituzu horrelako gauzak, berresteko.

Eta nola daramazu kontziliazioa?

Badaramat eta ez da gutxi; baina ez da erraza. Bikoteak ere badauka nahiko lan aktibo, inplikatu eta konplexua eta biok gabilta gure agendak eta txikiaren zaintza etengabe kudeatzen. Laguntzarekin eta ahal dugun moduan, noski. Eta txikiari besarkada asko ematen. Ze gu batzutan ezin gara hor egon, eta gaudenean, askotan kulpak kudeatzen, baina ulertzen baita gure lana zein den. Eta hortxe.

Lagundu dizu zure aktoretza prozesuan?

Ama izateak? Erabat. Zerbait biderkatu egiten da zure barruan. Zoramena da, maitasun eztanda, tarteka norabidea galtzea, iraultza bat... Imajinatu... Sentsazio, tresna, iruditegi berrietara irekitzen zara... Nekera eta desesperaziora tarteka ere, eh? Ez naiz orain amatasuna idealizatzen hasiko, baina Amazonas apasionante batek zeharkatzen zaitu zalantzarik gabe, eta hor materiala dago bai ala bai.

Eta orain ume batek esango balizu "aktorea izan nahi dut", zer esango zenioke?

Ba... hau polita izan da, "Aurrera... aurrera!" esango nioke orain, baina egia da lehen hau ez litzatekeela nere erantzuna izango. Nere alabaren kasuan esaten nion:

"Bueno... lehenago beste edozein gauza... ezta okurritu ere aktorea izatea". Baina aktore den lagun batek, Erikak, esan zidan "zergatik esaten duzu hori? Gu oso ondo bizi gara". Eta egia da gure zailtasunak eta momentu zailak ditugula, eta ez dut gure ofizioa erromantizatuko, besteak beste prekariedade handia ere badago eta, baina gehien maite dugun hori egiten dugu. Eta ondo pentsatzen baldin badut, ni ere banabil nire bidea egiten, zorionsua naiz horretan, oso. Beraz, ja bigarren erantzun kontziente bat ematen hasi naiz lagunari esker: "Aurrera!"

Momentu honetan nola ikusten duzu ofizioa?

Hau oso elkarriketa mardula izango litzateke eta seguruenik beste batzuei eman beharko genieke hitza. Ni oso txarra naiz erantzun jeneral jenialak ematen, oso galdera handia da, nola ikusten dudan orain... Buf... Niretik hasita, momentu emankor bat bizitzetik nator, baina auskalo. 27 urte daramatzat aktore lanetan eta horrek poz handia pizten dit barruan, baina horrek ez du esan nahi egoera erraza eta egonkorra denik. Urte guztiak ez dira berdinak izan noski, eta gauza desberdin asko egin ditut, egiten dihardut eta egingo ditut. Lehengoan Kepak Errastik irratian zioen bezala, Euskal Herrian zinematik bakarrik bizi diren bi egongo dira asko jota, eta antzerkiak bakarrik ere beste gutxi batzuk. Lankide batzuk beste ofizio batzuk ere badituzte aktore izatearekin osagarri zaizkienak, hor norberak bere formula egiten du, edo ahal duena. Gauza ederrak gertatzen dira, bai, eta kulturen jende potentea aurkitzen duzu eguneroko borrokan zorionez,

Euskal Zinemaren Gala Handia



Euskal Zinemaren Galan SSIFF
Argazkia **Gari Garaialde**

baina zeregin asko ere badago egiteko. Adibidez, antzokietan publikoa behar dugu. Oraingoa oso adin altukoa da, eta luxuzkoa nola ez, baina gazte jendea hurbiltzearen beharra dago guzti honi jarraipena emateko. Gure kulturari hauspoa ematen jarraitzeko. Hor norberak bere hausnarketa egin beharko du. Zergatik ikuslego falta? Ez dira garai errazak agian sare sozialak eta plataformak direla eta, baina nola ereiten da saretze kultural hori? Momentu honetan diru-laguntza asko oso bideratuta daude proiektu solteen sorkuntzara, baina proiektu horiek batzutan ez dute emanaldi zerrenda bat lortzen erakutsiak izateko. Aldekoak ez diren ze dinamika ari gara gauzaten, non daude giltzak eta non ardura handienak?

Era berean, nola dago Euskal Herria? Badago ofizioarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa? Egunerokotasunean kulturak ze leku dauka? Zer balio ematen zaio kulturari? Balioa ematen diogu? Baina ez futbol estadioetan gauzaten den makro kulturari bakarrik, tamaina guztietako kultur areto eta topaguneetaz ari naiz. Garai arraroak dira, denak erraldoia eta saritua izan behar duela dirudi, eta hortik haratago? Handia txikiak sostengatu du beti, txiki-rik gabe handi hori hutsa da eta zentzugabea da. Adibidez orain Bizien gaude, zinema eskola batean. Horrelako lekuak garrantzitsuak dira, sensibilizazio lana egiten da, heziketa bat eman, kultura eta sorkuntza hurbildu: antzerki eskolak, bertso eskolak, zirko eskolak, musika eskolak, dantza eskola, zein taldeak... Konplexua da. Bide luze batetik gatoz, eta bide luzea daukagu, nik uste dut amaiera gabeko bide bat dela.

Zerbait eskatuko zenioke sindikatuari?

Tira, nik sindikatuari eskatu... Aditz horrek gatazkan jartzen nau, ze nik uste dut batzuetan sindikatuari, zentzu batean, apur bat gehiago ematea falta zaidala. Ze egia da hor daukagun herramienta potente bat dala, baina azkenean gure bizitzan sartuta gabiltzala egunerokoa aurrera ateratzen... Nik bizi izan ditudan hainbat egoeratan beti sentitu dut hor egon dela eta horrekin oso eskertuta nago. Gauzak hobetu daitezkeela? Beti. Eta, bueno, badakit orain badagoela talde berri bat juntan, eta horrek bere horretan balio handia dauka. Tristura handia izango litzateke Euskal Aktoreen Batasuna desagertzea.

Ba ea nola bukatzen dugun

Ez dugu bukatuko, jarraitu egingo dugu. *To be continued...*

Ez dugu ikusiko... baina...

Hori da. Bueno, hori seinale ona izango da.

Miren, amaitzen joateko, kuriositatez, non amaitu du trofeoak?

Nere salako apal batean.

Ea gehiago jartzen dituzun bere alboan. Saria jasotzeak benetako bultzadarik eman dizu? Aldaketarik nabaritu duzu?

Barne bultzada bai eta kanpotik zorionak jaso eta berotasuna. Bidearentzako gasolina.



Imágenes cedidas Les Underklowns



ANA FABO (1967-2025)

Nuestra compañera Ana Fabo falleció a los 58 años de edad. Actriz donostiarra, contaba con una sólida formación en teatro, improvisación, movimiento y clown, disciplinas en las que se formó con diversos profesionales y que marcaron su trayectoria artística.

A lo largo de su carrera participó en cortometrajes como *OPNI* (2024) (1º Premio Cultura Inquieta) y *Las Guardianas* (premio Eusko Label en el Zinemaldia 2024), ambos dirigidos por Borja de Agüero, así como en la película *Un fantasma en la batalla* (Agustín Díaz Yanes, 2025) y en la serie *Patria* (Félix Viscarret; Óscar Pedraza, 2020). En 2023 cofundó la compañía teatral Sensata Locura, con la que presentó diversas piezas de microteatro, entre ellas *And the Winner Is* de Marc Egea y *La Carta* (Alazne Etxeberria, 2023), basada en *Notas de cocina* de Rodrigo García. Formó parte del colectivo Les Underklowns, con quienes creó el espectáculo *Klowns al Volante: Otro Mundo por Delante* (2023), y participó en numerosas intervenciones sociales. En los últimos años fue parte del rodaje de la serie *Esa Noche* (Jorge Dorado, Liliana Torres, 2026), el cortometraje *Generación Homeless* (Borja de Agüe-



ro, 2024) y la serie *The Price You Pay* (Aidan Truhen, 2026), a la vez que representaba *Cacahuètes* (Alazne Etxeberria, 2025), obra de microteatro de la que fue coautora. Muy querida en el entorno del clown, Ana Fabo deja una profunda huella humana y artística entre quienes compartieron escenario y camino con ella. Besarkada, Ana. Goian bego.



PARA SIEMPRE EN NUESTROS CORAZONES

En el clown –ese arte de transformar nuestro lado más humano y vulnerable en juego, a través de la máscara más pequeña del teatro: la nariz roja– aprendemos a navegar emociones y a reírnos de nosotras/os mismas/os.

Ana, Amaranta, tu generosidad, pasión y entrega moldeaban la seriedad de tus rasgos, ofreciéndonos la sublime interpretación con la que habitabas cada personaje, prestándole tu piel para transformarlo y darle vida. Tras aquella nariz roja vivía una magnífica payasa que, con sólo una mirada, era capaz de iluminar nuestros corazones y llenarnos de sonrisas.

Gracias, Amaranta. Tu esencia payasa seguirá brillando en cada función, en cada impro...

Les Underklowns, celebramos haber compartido contigo este viaje tan único, profundo y auténtico de encuentro entre almas y de gran complicidad con cada una/o de nosotras/os y tu público.

Te has ido, pero has dejado una gran huella en todas/os nosotras/os.

Les Underklowns

ANA ES ESA CHICA DE LA MIRADA CLARA Y LA SONRISA AMABLE

Es la inteligencia y el talento juntos en un cuerpo de mujer. Alguien de cuya compañía nunca se cansa una. Una compañera, una amiga, una persona a la que siempre te apetece darle un abrazo. Qué alegría y qué gustazo cada vez que nos ha tocado hacer algo juntas, Ana. Qué maravilla haberte acompañado a abrir la puerta del teatro y haberte visto gozar y crecer tanto. Qué tesoro colaborar con Esther y contigo en vuestra Sensata Locura. Y qué gozada ver cómo expandías tu arte en todas direcciones, no sólo actuando, también escribiendo. Ahora te voy a echar de menos, pero la alegría de haberte disfrutado, esa me la quedo para siempre.

Alazne Etxeberria

AISGE

da zurea

Ikus-entzunezko aktorea bazara,

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Musutruk,

Formakuntzan
laguntzaile
izango gaituzu,
lanean babesle

Eta dagozkizun
eskubideen
zaintzaile



aisge

www.aisge.es

943 271 599 tel.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa

